

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Euskara beketarako dirulaguntzen deialdia arautzen duen ordenantzaren behin betiko onarpena

Udalbatzak 2025eko urriaren 1ean egindako ohiko osoko bilkuran hartutako erabakia jendarean jartzeko epea igaro da. Erabakia 2025eko azaroaren 5eko ALHAOn argitaratu zen, 126 zenbakian, euskara beketarako dirulaguntzen deialdia arautzen duen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena emateko. Erabaki horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta ordura arte behin-behinekoa izan den erabaki hori behin betikoa izatera igaro da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera. Foru arau horren 16.4 artikuluan aurreikusitakoa betez, aipatutako ordenantzaren testu aldatua argitaratzen da, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2025eko abenduaren 17a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA

URKABUSTAIZKO UDALA

EUSKARAKO BEKETARAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Urkabustaizko Udalak euskara ikasteko laguntza beken deialdian izango diren oinarriak ezarri ditu, ikasturte bakoitzean izango diren beken deialdiaren oinarriak, alegia. Hona hemen deialdi horretako oinarriak:

DEIALDIKO OINARRIAK

1.- XEDEA: Euskara ikasketak, udako ikastaroak, barnetegiak eta UEUren ikastaroak barne, laguntzeko bekek ematea. Gastu hauek bekatik kanpo geldituko dira: joan-etorriko gastuak eta barnetegiko mantenu eta ostatu gastuak.

2.- ONURADUNAK:

Urkabustaizko Udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsona interesatu guztiak.

Pertsona bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake, (urria-otsaila, otsaila-ekaina, urria-ekaina, uda, uztaila edo iraila eta barnetegiak), baina beka bakarra jasoko du ikastaro bakoitzeko.

Ezingo dute diru-laguntzarik jaso Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluak aipatzen dituen arau-hausteeekin zigortutakoek.

3.- BEKA HORNIKETA ETA SORTZAPENA:

Bekaren zenbatekoa matrikularen kostuaren ehuneko 100ekoa izango da, beti ere eta aurrekontuetan beketarako onartutako partida izango delarik muga. Eskaera-kopurua dela eta, banatu beharreko zenbatekoak partidan onartutako kopurua gaindituko balu, eskaeren artean hainbanaketa egingo litzateke. Horretarako, honako proportzioak bete beharko dira, irizpide nagusi modura: ehuneko 80 langabetu eta ikasleentzat, eta ehuneko 50 gainerakoentzat.

4.- ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK:

Eskaera egiterakoan, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

A) Udalak emandako eskaera-orri ofiziala, eta, horrekin batera, xede horretarako beste edozein administrazio, organismo edo entitate publikoren diru-laguntzarik edo laguntzarik jaso duela edo ez duela adierazten duen zinpeko aitormena. Beste diru-laguntzarik jaso badu, jasotako kopurua eta zer administrazioek eman dion zehaztu behar da; halaber, datu horiek egiaztatzen dituen egiaztagiria ere aurkeztu behar da.

B) Euskaltegiaren edo ikastaroa egin den zentroaren ziurtagiria, honako datu hauek guztiak jasotzekoa: zer ikastaro hasi eta amaitu duen, ikastaroaren ordu kopuru osoa eta ikasleak aprobetxatu dituen ordu kopurua (gutxienez, %80ko asistentzia), ikastaroaren hasiera- eta amaiera-datak eta ikastaroaren kostu osoa. Barnetegiaren kasuan, irakaskuntza-gastuak eta mantenu- eta ostatu-gastuak bereizi behar dira.

D) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen bankuaren agiria.

E) Langabezian daudenek: Ikastaroa egin duten epealdiko lan-bizitzaren agiria. Ikasleek: ikasturte horretako matrikularen fotokopia, dagokion Ikastetxeak emandakoa (ikasketa ofizialen kasuan bakarrik).

5.- AURKEZPENA ETA EPEAK:

Ikasturte bakoitzeko beka eskaerak, barnetegienak barne, urte bakoitzeko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Udaleko Sarrera Erregistroan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, 38. artikulua finkatutako beste edozein bideren bitartez.

6.- ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA:

Udalbatzako alkate-udalburuak emango ditu diru-laguntzak, aldez aurretik euskara-eremuaren eskumena duen administrazio-unitatearen txosten teknikoa izanik (euskara teknikaria).

Denek jakin dezaten argitaratzen da.
Izarra, 2025eko abenduaren 17a. Alkatea, Xabier Álvarez de Arcaya.